

Gaia: Udazkena-negua
Doinua: Triste bizi naiz eta

1.
Irailak hogeita bat
dator udazkena
kolore marroiakin
jantzita den-dena
hostoak erorita
ematen du pena
negua laister dator
hori da onena

2.
Urria bukatuta
azaroan gaude
udazkena erdian
haizea ta ude
ta erreka guztiak
aterata daude
hori dela medio
hainbeste uholde

3.
Hotza egiten hasi
du dagoeneko
gutxi falta baizaigu
negua hasteko
basotik hartu egurra
sua piztuzeko
energia aurreztuz
denok berotzeko

4.
Negua etorri da
elurrez beteta
Txindoki igotzeko
ez daukagu beta
animali guztiak
zulotan gordeta
neguan lozorroan
horrela daudeta

5.
Neguan hoberena
baidira gabonak
ta egun horietan
ditugu oporrak
zuhaitz polita jarri
elkartu lagunak
familiakin egon
ondo izan denak

6.
Urteko azken eguna
hogeita hamaika
gaueko hamabitan
guztiok korrika
bihotza alaitzen du
begira jarrita
urtea bukatzeko
argazki polita

Egilea: udazkena